

Gure lehentasuna: **Enplegua eta langileen eskubideak**

Euskal kutxen bat-egitea mahai gainean dago. Baina oraingoan ezustekoa eman digute: Vital kanpoan utzi eta BBK eta Kutxaren artean bakarrik egin nahi dute. ELA ez dago ados erabaki honekin.

1.- ULERGAITZA IKUSPEGI SOZIAL ETA EKONOMIKOTIK

Iragarritako plana egoitza politikoan erabaki da, interes politiko eta ekonomikoen arabera. Bat-egitea bikoia edo hirukoa izatea (are hobeto litzateke lauen artekoa, baina hau baztertuta dago) alderdi politikoen arteko gorabeheren ondorio izango da. Dena den, argitu beharreko zenbait puntu ikusten ditugu:

A.- **INKOHERENTZIA POLITIKOA.** Harrigarria da Vitaleko goi-karguak banatzeko orduan hain adiskide agertu zirenak, hiru kutxen bat-egitea "estrategikoa, atzeraezina eta beharrezkoa" zela esan zutenak, orain horrela plazaratzea.

Ez dator bat Vital kutxari buruz erabateko desadostasuna azaltzen duten alderdi politikoak beste erakunde batzutan elkarrizketa normalak izatea (aurrekontuen negoziazioa, etab.), eta harreman horietan kutxen gaia ez aipatzea. Ez da taxuzkoa. Izan ere, euskal kutxen bat-egitea estrategikoa da edo ez?

B.- **EZTABAIDA MANIPULATUA.** Alderdien estrategiak manipulatzeko ari dira eztabaida, datozen hauteskundeetarako. Bereziki Araban honi buruzko demagogia egin izan da sarri, eta oraindik ere hortan ari dira.

C.- **ENPLEGUA, GURE KEZKA.** Hiru kutxen bat-egitea baztertzeko atzeratu ezin den eztabaida bat dakar, enpleguan eragin larria baitauka. Hirurek bat egiten ez badute, gainontzeko lurraldeetan lehian hasiko dira? Asmoa hau balitz, eta horrelakorik aipatu dute, hankasartze handi bat litzateke.

Beraz, ELAren iritziz ez dago Vital bat-egitetik kanpo uzteko arrazoi objektiborik.

2.- KUTXEN EREDUA:

ELAk bere garaian esan zuen bat-egiteak zeintzu baldintza eskatzen zituen: joera neoliberaletatik aldendu eta kutsu sozialak lehentasuna izatea, eta Euskal Herriaren egituratze ekonomiko eta sozialaren alde egitea.

Kutxentzat iraganean baldintza sozialak ez dira eragingarriak izan, ezta bat-egite honen aurrean ere. Adibidez, lan-baldintzetan kutxek inolako eragozpenik gabe azpikontrataziora jotzen dute, ABLE eta zerbitzu-enpresak erabiltzen dituzte, soldata-eskala bikoitzak edo kolokako enplegua... Ez zaie bat ere axola, banku pribatuek bezalaxe jokatzeko dute. Eta finantzen esparruan ere erakunde pribatuek eta kutxek eskaintzen dituzten produktuetan ez dago inolako desberdintasunik: inbertsioak merkatu espekulatiboetara bideratu dituzte...

ELAren lehentasuna da kutxek ezartzen duten kolokako errealitateari aurre egitea.

3.- LEHENTASUN SINDIKALA: LAN-BALDINTZAK. Gaur oraindik ez dakigu bat-egite prozesu honen emaitza zein izango den, eta kutxek informazio interesatua, partziala eta eskasegia eman digute. Gure lehentasuna prozesu honetan, goian esandakoaz gainera, lan-baldintzen defentsa izango da, bat-egitea zuzenean edo zeharka jasaten duten langileei dagokienez. Operazio hau erabaki duten arduradun politikoek –biko edo hirukoa dela ere–

frogatu egin beharko dute enplegua eta lan-baldintzak bere horretan mantenduko dituztela. ELAk honetarako negoziazio-mahai bat osatzea eskatzen du.

Hauek dira, besteak beste, gure oinarritzko aldarrikapenak:

1.- HIRU KUTXEN HOMOLOGAZIOA ETA PAREKATZEA.

Lan-baldintzak homologatzeko oinarritzat hiru kutxetako hitzarmen kolektiboak hartu behar dira. Hasteko, minimoak honako esparruetan ezarriko ditugu:

- Sailkapen profesionala, soldata-mailak eta promozioa.
- Lanaldi orokor jarraia eta oporrak
- BGAEtarako ekarpenak
- Berme sindikalak
- Aldez aurreko erretiroa eta enplegu berria

2.- ENPLEGUA MANTENTZEA.

Bat-egiteak lanpostu galerarik ez du ekarri behar.

3.- GIZARTE EKINTZA SENDOTZEA:

Gizarte ekintzak izan behar du kutxen ezaugarri nagusia, eta eurek antolatuta, bertoko langileekin egitea dagokie. Gizarte ekintzako langileen lanpostuak mantendu eta lan-baldintzak zein soldatak hobetzeko plan estrategiko bati ekin behar zaio; gutxieneko soldata duina ezarri behar da.

4. – KOLOKAKO ENPLEGURIK EZ:

Kutxen menpeko azpikontrata, zerbitzu-enpresa eta ABLEetan enplegu egokia eskatzen dugu. Gutxieneko soldata duina eta subrogazio eskubidea.

5.- ORDEZKAPEN ETA NEGOZIAZIO ORGANOAK:

Organo horietan euskal esparrua defenditzea.

	ELA	LAB	CCOO	BESTEAK	Guztira
Caja Vital	9	2	8	7	26
Kutxa	10	8	7	19	44
BBK	16	6	15	3	40
GUZTIRA	35	16	30	29	110

ELAko Zerbitzuak Federazioa eta Caja Vital, Kutxa eta BBK-ko atal sindikalak

Bilbon, 2008ko urriaren 30an